

## TITO LABORDETA, LEZOAR IRAULTZAILE BAT FRANKISTEN HATZAPARRETAN

**S**arritan entzun izan dut, lezoarroi epelkeria leporatu nahian, bi eliza dituen herri batetik ezin dela gauza onik espero. Lezo elizkoia eta karlista izan omen zen aurreko mendean. Amaitzera doan mende hau, berriz, nolako izan da, edo hobe esan nolakoak izan gara, orohar noski, lezoarrak?

Bistan da aurreko mendean Lezoarrak elizkoiak izan baldin baziren eragin horrek indarran jarraituko zuela mende honen hasieran. Eta lezoarrok ez dugu Elias Salaberriaren Gurutzearen Prozesioaren kuadroa ikusi beharrik hori sinisteko. Bai, Lezo elizkoia izan zen oso mende honen lehen erdian. Ondorengo erdian, berriz, bistan da elikoi izateari utzio diotela Lezoar gehienek, abertzale izateari utzi al dio ordea? Ez horixe, elizaren eraginak atzera egin duen bezalaxe abertzaletasunak aurrera egin du, ezkerreko abertzaletasunak batez ere.

Gaur egun lezoar guziak abertzaleak ez diren bezalaxe, orduan denak elizkoi eta kontserbadoreak al ziren? Non dago Lezoko ezkerzaletasunaren ernamuina?

Ez gara gu hemen galdera horiei erabateko erantzunak ematen hasiko, ez horixe. Jakin badakigu, ordea, gerraurreko Lezo abertzale eta elizkoi hartan izan zirela eliza eta kapitalismoaren ordenarekin bat egiten ez zutenak. Behin baino gehiagotan entzun izan dugu gure zaharren ahota halako eta halako "komunixtak" zirela, beste halako, berriz, "gorriya" edo "republikanua". Halakoak entzutearekin batera ekuazio jakin bat ere ikasi izan dugu, "gorria = espainolista". Hori horrela izan ote zen? Bai al dago garai historiko hartan gertatutakoa gaur egungo terminoekin aztertzerik? EZ, zalantzarik gabe.

Inaxio Artolak berak ederki dioen bezala, "garai hartan jendeak uste zuen ezkerrekoa izateagatik espainolista zela bat, eta hori oker handia da, izan ziñezke ezkerrekoa eta abertzalea eta orduan ere bai". Bistan da, ezkerreko mugimendu abertzalea garai hartan oraindik oso gaztea zela eta ezkertzaletasuna eta abertzaletasun jeltzalearen artean dibortzioa erabatekoa zela. Zatiketa honek kalte ugari eragin zion abertzaletasunari, eta Espainolzaletak euren proiektu inperialista sendotzeko erabili zuten. Orduko aldizkari "sozialiste"k zer zioten irakurtzea besterik ez duzue hori ulertzeko.

Euskal Herriko ezkertzaletak guziak ez ziren, ordea, espainolistak, abertzaleak ere baziren eta fin askoak gainera, ANV-EAEn bildutakoak horren adibidetarako. Lezon, ordea, ez dirudi ANV-EAEk indar handirik izan zuenik hautekundeetako emaitzak kontuan hartuta. Republikanismoak bai ordea. Republikanoek bazuten Donibane kalean euren egoitza, eta egiten zituzten agerraldiak ere. Bestalde, ez ziren falta izan Lezon nagusi zen abertzaletasun jeltzalearekin liskarrak. Melintton Garmendiak ederki asko

kontatzen digu zer-nolako gora-beherak egon ziren San Juan eguneko lizarraren muturrean ikurriña jartzeko: TESTUA.

Zein ziren, ordea, ezkerzale haiek? Galdera hori eginda Melinttonek berak honako erantzun hau ematen digu: TESTUA.

Hau idaztera bultzatu gaituena kasu berezi bat izan da, Juan Frantzisko Labordeta, "Tito"rena. Tito Iruritan jaio zen 1914an eta handik Lezora etorri zen familiarekin. Bere bizitza luzea eta oparoa izan baldin bazen ere gaurkoan agiritegi frankistan "Tito"ri buruz ageri dena izango dugu aipagai.

23 urte zituela, 1937ko abuztuan Santanderren harrapatu zuen Francoren armadak eta espetxera bidali. Atxiloketaren txostenean honela dio:

"Como antecedentes políticos o sociales figuran los de pertenencia a la U.G.T. desde el año 30.

(...)

Informe del Ayto. de Lezo:

"Miliciano voluntario a las órdenes del F.P. (Frente Popular), requisó armas en el pueblo y luchó con entusiasmo en favor de los rojos, tomando parte muy activa en contra del Movimiento.

Pertenecía al Partido Comunista y su actuación ha sido muy destacada."

Titoren beraren deklarazioa, berriz, honako hau izan omen zen (pentsa dezakegu zein metodoren bidez lortua):

"Que al iniciarse el Movimiento paró la fábrica donde trabajaba quedando sin ocupación y estuvo haciendo algunas guardias en el pueblo, en la retirada, de San Sebastian marchó a Bilbao y allí el mes de enero se alistó en el Batallón 64 habiendo estado en el Gorbea y en Berriz, en este pueblo cayó (...) estando en una ambulatoria hasta el comienzo de la ofensiva que se encontraba en Arredondo y de aquí vino a Santander donde se hallaba a la entrada de las tropas Nacionales. No ha intervenido en ningún combate. No ha tomado parte en requisas, registros, detenciones, fusilamientos, etc. ni obtenido ascenso alguno."

Bere deklarazioa eta Lezoko udalak eman zuen lekukotasunaren bitartez honakoa izan zen prozesamendurako erabili zituzten argudioak:

"Que el encartado Juan Labordeta Santos estaba afiliado al partido comunista, que en las elecciones del año 1936 intervino activamente y que durante el dominio rojo hizo propaganda marxista alistándose como miliciano voluntario, practicando registros, requisando armas y apoderándose de un coche propiedad de un falangista".

Argudio hauek eta deklarazioan onartutakoetan oinarrituz epaileak Tito Santanderko espetxean sartzea agindu zuen (1937ko abuztuaren 26.a) eta bertan egon behar izan zuen 1940ko ekainaren 11.a bitartean, alegia, bi urte, bederatzi hilabete eta hamabost egunez.

Espetxetik atera eta Tito bizitza luze eta oparoa izan zuen. Bera zen, herriko beste hainbat "gaizkile"rekin batera, udaletxeko ziegan sartzen zutenetako bat Franco Donostiara zetorrenean.

Eta frankismoak bera eta bera bezala zapalkuntzaren aurka altxa ziren guziak gogotik estutu zituen arren, Titok ez zuen inoiz galdu indar zapaltzaileen aurrean oldartzeko grina hura. Bere sendia eta ingurukoak horren lekuko.

Honekin utziko dugu, oraingoz, historiaren zati txiki hau, beharbada, txikiegia gizon handien herrian, baina gurea bezalakoetan idatzita utzi beharrekoa. Eta horixe besterik ez zen gure asmoa, historiaren unetxo bat berreskuratzea gure geroaren bultzagarri izan dadin.

*IMANOL ESNAOLA*